Horrenbestez, aurten zein datozen urteetan pertsonarik zaugarrienen eta gure laguntza behar duen ororen alde lan egiten jarraituko dugu, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen, gizarte-bazterkeria jasan dezaketen umeen, etorkinen, etxerik gabeko pertsonen, adinekoen, zirkulazio-istripuak jasaten dituztenen, itsasoan zein hondartzan ezbeharren bat jasaten dutenen edo mendian galtzen direnen ondoan egongo gara.

Bizkaiko Gurutze Gorria osatzen dugun guztiok konpromisoa dugu eta izango dugu egunean 24 orduz, urtean hirurehun eta hirurogeita bost egunez, beti ere gure baloreak gogoan hartuta: **"gizatasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna, independentzia, boluntariora, batasuna eta unibertsaltasuna"**, guztiak ere ezinbestekoak baitira bidezkoagoa eta zuzenagoa den gizartea eraiki ahal izateko.

Berriz ere eskerrik asko. Zuen esanetara gaude behar duzuenarako.




## 1.- BORONDATEZKO LANA ETA PARTAIDETZA

Gure printzipiorik behinenetako bat Gurutze Gorriaren nolakotasuna argien erakusten duena da, **boluntarioria**, alegia. Borondatezko lanak, beraz, herritarren partaidetza bideratzea eta aktiboak, prestakuntzadunak eta konprometituak diren boluntarioen gizarte-erlaldakuntza egitea ahalbidetzen du, eta horretarako ezinbestekoa da **boluntarioriaz** bidez sortzen diren “sare solidarioen” sustapenean oinarritzen den *Gizateriaren Boterea*. Herri, hiri, eskualde eta auzo bakoitzeko biztanleak dira borondatezko lanaren aldeko apustua eginda ahulenen alde eta “gizakien duintasuna” defendatuz lan egiteko konpromisoa hartzen dutenak. Konpromiso horri esker, gure Erakundeak ekimen eta zerbitzu ezberdinak gara ditzake, eta horrela Erakundearen jarduna gure Lurralde Historikoko herri eta eskualde ezberdinetako pertsona ugariengana iristen da.

**Proiektuak:** Trebakuntzarako, sentsibilizaziorako, laneratzeko, jarraipena egiteko eta boluntarioen koordinazio eta partaidetzarako jarduerak.

<b>Bizkaiko boluntarioak</b>	<b>7.949</b>	
<b>Gizonak</b>	<b>4.498</b>	<b>% 56,59</b>
<b>Emakumeak</b>	<b>3.451</b>	<b>% 43,41</b>


	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>
JARDUNEKO BOLUNTARIOAK	1.713	1.452	3.165
NOIZBEHINKAKO BOLUNTARIOAK	2.785	1.999	4.784





	Gizonak	Emakumeak	Guztira
<b>JASOTAKO ESKABIDEAK</b>	<b>290</b>	<b>429</b>	<b>719</b>
ALTAK	203	294	497
<b>LANERATZE-RATIOA</b>	<b>% 70,00</b>	<b>% 68,53</b>	<b>% 69,12</b>

	Gizonak	Emakumeak	2011	%
14 urtetik behera	46	52	98	% 1,23
14 - 15 urte bitartean	24	25	49	% 0,62
16 - 20 urte bitartean	127	236	363	% 4,57
21 - 30 urte bitartean	919	1501	2420	% 30,44
31 - 40 urte bitartean	2615	921	3536	% 44,48
41 - 50 urte bitartean	443	231	674	% 8,48
51 - 60 urte bitartean	148	174	322	% 4,05
61 - 65 urte bitartean	39	65	104	% 1,31
65 urtetik gora	137	246	383	% 4,82
<b>Guztira</b>	<b>4.498</b>	<b>3.451</b>	<b>7.949</b>	<b>% 100,00</b>



## 2.- DIRU-SARREREN SUSTAPENA, BAZKIDEAK


Gurutze Gorriaren puzzle konplexu hau osatzen duen beste oinarrizko pieza bat **bazkideak** dira. Euren ekarpenei esker, gure Erakundeak pertsonarik zaugarrienentzako jarduera-plana gara dezake. Bazkideek egiten dituzten ekarpenek programen egonkortasuna eta jarraipena bermatzen dute, eta Lurralde Historikoko pertsona ugari laguntza motaren bat jasotzea ahalbidetzen dute.




**Bazkideen bilakaera Bizkaiko Gurutze Gorrian**

Urtea	Bazkide kop.
2002	9.754
2003	10.518
2004	10.834
2005	11.424
2006	12.594
2007	14.196
2008	15.272
2009	16.875
2010	17.222
2011	17.800

**Bazkideen bilakaera**



<b>GIZABANAKOAK</b>	<b>17.147</b>
<b>ENPRESAK</b>	<b>653</b>



### 3.- ESKU-HARTZE SOZIALA

#### ADINEKOENTZAKO ESKU-HARTZEA

Adineko pertsonen programaren helburua adinekoen euren eta beren eguneroko bizimoduan zaurgarrienak diren talde sozialen gaitasunak sustatzea da, horrela euren eta taldearen autonomia pertsonala hobetzen baita eta horrek erabat gizarteratzen laguntzen baitie. Parametro hori kontuan hartuta, Gurutze Gorriak *adineko pertsona bere ohiko inguruan, bere familian eta bere inguru sozialean integratzea eta bertan gelditzea* ahalbidetuko duen *oraindirako eta etorkizunerako gogoeta-puntua* proposatzen du.

Ildo horri jarraiki, honakoak dira Bizkaiko Gurutze Gorriak adinekoekin egiten diren esku-hartzeen inguruan dituen helburu orokorrak:

**Adineko pertsonak AINTZATESPEN SOZIALA eta GIZARTEAN PARTE-HARTZE handiagoa izan dezatela** lortzea. Horretarako oso garrantzitsua da talde horren irudia aldatzea, aurreiritziak eta aurrez ezarritako kontzeptuak aldatzen eta suntsitzen saiatuta.

Erakundeetan sartu beharrean **BEREN OHIKO INGURUAN** (familia, auzoa, etab.) **EGOTEA** bultzatzea, horretarako gure programak eta jarduerak baliatuz.

Adineko pertsonen gaitasun kognitiboak estimulatzea edota mantentzea.

#### Proiektuak:

Gizartean duten partaidetza sustatzea (adineko pertsonak borondatezko lanetan parte hartzea), Etxebizitzetan eta egoitzetan laguntza-zerbitzua ematea, informazio- eta aholkularitza-bulegoa, Adineko Pertsonentzako Baliabideen Gida (2011. urtekoa; web orria: <http://www.quiaparamayores.org>), laguntza teknikoak, animazio soziokulturala, estimulazio kognitiboa etxean zein taldeka (memoria eta teknologia berriak erabiltzeko tailerrak), egoitzen dinamizazioa (abesbatza, tailerrak...), María Muñoz Etxebizitza Komunitarioa, LOPE - Adinekoentzako GPS Bilatzailea.

Proiektuok modu ezberdinean aplikatzen dira Bizkaiko Eskualde edo Toki Batzar bakoitzean.

#### SOCIAL TV – Teknologia berrietarako esperientzia pilotua

**3G sistemarako SocialTV** Gurutze Gorriak, Vodafone España Fundazioak eta TECSOS Fundazioak garatutako proiektua da, eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak abian jarritako Avanza2 Planak barne hartzen dituen pertsona ezinduak eta adinekoak Gizarteratzeko Laguntzen baitan sartzen da.



3G sistemarako SocialTV ekimenak adinekoentzako Topagune bat definitzen, garatzen eta probatzen du erabiltzailearen telebista eta banda zabaleko Internet-konexio bat baliatuta. Dena

kontrolatzen da telebistaren urrutiko agintearen bidez, eta sistemari esker erabiltzaileek telebistan elkar ikusi eta pertsona ezberdinekin hitz egin ahal izango dute.

Joan den 2011. urtean 9 hilabetez probatu zen “SocialTV” sistema, eta tarte horretan Espainiako Gurutze Gorriaren 100 erabiltzaile inguruk erabili zuten 41 probintzian (Bizkaian bi pertsonak erabili zuten).

3G sistemarako SocialTV ekimen horren helburua teknologia berrien bidezko harreman sozialak sustatuta adineko pertsonak sentitu ohi duten bakardadea eta isolamendua (eta sentimendu horiek eragiten dieten zaurgarritasuna) murriztea da.



## GIZARTE-BAZTERKERIA EGOERAN DIREN PERTSONEN ETA FAMILIEN ARRETA

Krisiaren ondorioz, azken urteetan hazi egin da etxerik ez duten pertsona eta familiekiko lana, eurengan eragin handia izan baitu bizi dugun krisi-egoerak.

**Proiektuak:** Harrera, informazioa eta orientazioa, ostatua, aholkularitza legala, errefuxiatuak, gizarteratzeko laguntza, borondatezko itzulera, familiak berriro elkartzea, harrera-etxebizitzak, sensibilizazioa eta kultur artekotasuna, alfabetizazioa eta gaztelania-eskolak, oinarrizko premiei erantzutea (berokiak, lozakuak, higiene-kitak), umeak dituzten familientzako eskola-materiala, arreta humanitarioa eta etorkinen harrera Kanarietan, Ceutan eta Melillan.

Aurten azpimarragarria da **Alma eta Golf itsasontzietako** tripulazioei emandako laguntza humanitarioa.



*Eskola-materialaren bilketa – Carrefour Fundazioa*



*Hizkuntza-bikoteen proiektua*



*Oinarrizko premiei erantzuteko materiala etxerik gabeko pertsonentzat*



*Oinarrizko premiei erantzuteko materiala etxerik gabeko pertsonentzat*

## ENPLEGU-PLANA

Bizkaiko Gurutze Gorriaren Enplegu-planaren jarduerak laneratzeko arazo gehien duten pertsonen trebeziak eta gaitasunak garatzeko helburua du. Enplegu-planak ingurunea ere lantzen du eredu sozioekonomikoari loturiko mugak ahultze aldera, izan ere, muga horiek zaildu egiten dute talde zaugarrienak lan-merkatuan sartzea eta, aitzitik, laneko diskriminazio-prozesuak bultzatzen edo mantentzen dituzte. Honako proiektuak garatu dira:

**Enplegagarritasuna hobetzeko neurri espezifikoak:** lan-informazioa, lanaren aurreko informazioa eta enplegua bilatzeko espazioak.

**Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak:** **Interlabor@ sarea:** partaideen orientazioa, heziketa eta laneratzea

## PERTSONA EZINDUENTZAKO ESKU-HARTZEA

Pertsona ezinduek lehendik ere badauden sare sozialetan parte hartzea sustatzea, ezintasun fisiko handia duten pertsonen gizarteratze-maila areagotzea aisialdiko jardueretan parte hartzera bultzatuta, eta jardueraren eremu geografikoko ezinduei are eskuragarriago jartzea egon dauden baliabideak; horiexek dira proiektu honen xederik behinenak. Helburu horiei esker, garraio publikoa erabili behar duten ezinduentzako zailak izan ohi diren hainbat jarduera eta zeregin modu errazagoan egin ditzakete mugikortasun arazoak dituzten pertsonak.

### Proiektuak:

Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen aisialdiko jardueretan parte hartzeko, etxetik irteteko, enkarguak egiteko, medikuarenera joateko eta eguneroko jarduerak egiteko aukera ematen dien garraio egokitua.

Nerbioiko Haraneko, Ezkerraldeko, Uribealdeko, Bermeoko, Durangoko eta Enkarterrietako Batzarren jarduera-eremua.



### HAURTZAROA ETA FAMILIA

Esku-hartze eremu honen *helburu nagusia* adingabeen garapenik onena lortzea da. Hori erdiesteko umearen, bere familiaren eta inguruaren baliabide pertsonalak sustatu behar dira babesgabetasun eta utzikeria egoeretatik babesteko eta behar bezala gizarteratu ahal izateko behar duen trebakuntza emateko. Esku artean duguna bezalako zabala eta uste handikoa den helburu batek ahalik eta esku-hartzerik global eta integratzaileena eskatzen du pertsona bakoitzaren errealitatean eta adingabearengandik hurbilen dauden eragile sozializatzaileetan (hots, familian eta komunitatean) zentratu ahal izateko.

### Proiektuak:

Gizarte eta Hezkuntza alorreko esku-hartze komunitarioa. Lan-eremuak: pertsonala, harremanak, familia, osasunerako hezkuntza, eskola-heziketa, lana, aisialdia, irakurketan parte hartzea eta horretara animatzea, eta esparru juridiko eta administratiboa.

Bilboko Batzarrean ezarri da.

## GIZARTE-ERAGOZPENAK DITUZTEN EMAKUMEAK

### Proiektuak:

2011. urtean (apirilean) *genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta beren mendeko pertsonentzako Berehalako eta Larrialdietako harrera-zerbitzua eta Epe ertain edo luzerako harrera-zerbitzua* hasi zen kudeatzen, eta baita *Partekatu gabeko familia-zama duten edota gizarte-bazterkerian dauden edo horretarako arriskua duten emakumeentzako epe laburrerako harrera-etxebizitza* ere, Barakaldon.

Etxebizitza-baliabideon helburu nagusiak honakoak dira:

Larrialdi-egoeretan ostatua eta babesa ematea indarkeriaren biktima diren emakumeei eta beren seme-alabei edo mendeko pertsonen.

Desegituraketa pertsonala, familiarra edota soziala duten edota familiarren edo sare sozialen laguntzarik eta baliabide ekonomikorik ere ez duten emakumeei ostatua, babesa eta mantenua ematea.

Bestalde, aurten *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorren* proiektua (**ATENPRO**) kudeatzen jarraitu da.

### Zerbitzuak eskaintzen dituen prestazioak:

- Gelaxkako GPS edota GSM triangulaketa bidezko alarma-arreta
- Urrutiko lokalizazioa
- Agenda-zerbitzua
- Baliabideak kudeatzea eta aktibatzea
- Arreta-zentroak emandako arreta psikosoziala (24 orduz)
- Balio erantsidun jarduera osagarriak
- Gurutze Gorriko beste Zerbitzu batzuetan sartzea

### **Atxikitako udalerririk**

Santurtzi
Portugalete
Barakaldo
Sestao
Basauri
Galdakao
Bilbo
Enkarterri
Erandio
Lekeitio

## PRESOAK

### **“NI: PREBENTZIORAKO ETA NEURE OSASUNA ETA INGURUA ZAINTEKO ERAGILEA”**

Kartzeletako presoek espetxean zein handik irteerakoan bizi dituzten eguneroko egoera ezberdinei behar bezala aurre egiteko psikologia- eta osasun-arloko trebeziak behar dituztela antzeman ondoren sortu zen proiektu hau, eta ekimenak arlo ezberdinak lantzen ditu: elikadura-ohiturak hobetzea, behar bezalako higie eta zaintza pertsonala, jokabide arriskutsuak aldatzea, Lehen Sorospenak, etab.

Garapen-eremua: Nerbioiko Haraneko Eskualde Batzarra - Basauriko Kartzela

### **KOMUNITATEAREN MESEDETARAKO LANAK**

2006an Gurutze Gorriaren eta Espetxeen artean sinatutako hitzarmenari jarraiki, Gurutze Gorriak eta Espetxeetako Zerbitzu Sozialek komunitatearen mesedetarako lanak egitera zigortutako pertsonen zuzendutako proiektua kudeatuko dute beste urte batez.

2011. urtean: 50 pertsonak hartu zuten parte komunitatearen mesedetarako lanen jardunaldian.  
Proiektua ezarri duten Batzarrak: Ezkerraldea, Nerbioiko Harana, Bilbo, Uribealdea, Mungia, Gernika, Bermeo, Enkarterri.

### **“OSPITALEAN DIREN GAIXOEN ARRETA”**

Proiektuak helburu bikoitza du, izan ere, alde batetik familiei zama aritzea bilatzen du eta bestetik, aldiz, ospitalean diren pertsonen lagun egitea, bakardadea arinduta eta gaixoarentzako laguntza emozionalerako esparru bat sortuta. Honako jarduerak osatzen dute proiektua:

Gela barruan zein kanpoan lagun egitea.

Erabiltzailearekin berriketan aritzea eta bere solairuan egiten diren jardueretan parte hartzea.

Garapen-eremua: Ezkerraldeko Eskualde Batzarra - Santurtziko San Juan de Dios ospitalea

### **“GABONETAKO JOSTAILUEN KANPAINA”**

Jostailuen Kanpainaren bidez jostailuak ematen zaizkie Ezkerraldean zailtasun ekonomikoak dituzten familietako umeei.

Ekimenaren helburua belikoak edota sexistak ez diren jostailu berriak banatzea da.  
Ezarri duen Batzordea: Ezkerraldea



#### 4.- HEZIKETA

##### Ikastaroak:

Lehen Sorospenak, Oinarrizko Bizi-euskarria eta Kanpoko Desfibrilagailu Automatikoak (KDA), Uretako Sorospena, Geriatria, Alzheimerra, Adineko Pertsonak, Etorकिनak, Laguntza Psikologikoa, Gizarte-trebeziak, Aisialdia, Elikagaien Manipulatuzailea. LANBIDEren zentro laguntzailea: Osasun-garraioko teknikari ikastaroa

Eskualde edo Toki Batzar ezberdinen probintziako garapen-eremua.


Bilboko Udalarekin elkarlanean garatu da udalerriko ikastetxe eta Bigarren Hezkuntzako institutuetan (BHI) zein Lanbide Hastapenerako Zentroetan (LHI) Bizkortze Kardiobaskularra irakasteko programa.



2011n EMANDAKO IKASTAROEN LABURPENA	IKASTAROAK	IKASLEAK	ORDUAK
<b>ESKU-HARTZERAKO HEZIKETA</b>	<b>5</b>	<b>73</b>	<b>1039</b>
GURUTZE GORRIKO GAZTEEN HEZIKETA	3	47	1020
HEZIKETA SOZIALA	2	26	19
<b>PARTAIDETZARAKO ETA GIZARTERATZEKO HEZIKETA</b>	<b>97</b>	<b>834</b>	<b>378</b>
LANBIDE-TREBAKUNTZA ARAUTU GABEA	3	32	56
GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA	94	802	322
<b>GUZTIENTZAKO HEZIKETA</b>	<b>303</b>	<b>5042</b>	<b>5287</b>
GURUTZE GORRIKO GAZTEEN HEZIKETA	1	12	20



NAZIOARTEKO LANKIDETZA ARLOKO HEZIKETA	2	26	20
OSASUN ARLOKO HEZIKETA	1	11	20
SOROSPEN ETA LARRIALDIEN ARLOKO HEZIKETA	137	2300	1823
LANERAKO HEZIKETA	1	18	400
HEZIKETA SOZIALA	1	4	9
BESTELAKO HEZIKETA	160	2671	2995
<b>GARAPEN INSTITUZIONALERAKO HEZIKETA</b>	<b>25</b>	<b>272</b>	<b>198</b>
LANGILEEN ETENGABEKO HEZIKETA (FORCEM)	4	41	35
HEZITZAILEEN ETA MONITOREEN HEZIKETA	2	24	99
BESTELAKO BARNE-HEZIKETA	19	207	64
<b>GUZTIRA</b>	<b>430</b>	<b>6.221</b>	<b>6.902</b>



## 5.- LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROA

Gurutze Gorriaren Lanbide Heziketako Eskolak ibilbide luzea du hezkuntza soziosanitarioaren arloan, eta gaur egun emaitza ezin hobekak lortzen jarraitzen du hezkuntzaren kalitateari zein giza kalitateari dagokienean. 5.000 ikasletik gora hartu ditu Eusko Jaurlaritzarekin itundutako Zentro homologatu honek (ezin aipatu gabe utzi Jaurlaritzak beti eman izan digun laguntza).


**Osasun arloko laguntzaile boluntarioen eskola**

**Erdi Mailako Heziketa Zikloak:** Erizaintzako laguntzailea eta Arreta Soziosanitaria

**Goi Mailako Heziketa Zikloak:** Dietetika, Anlisi Klinikoen Laborategia eta Gizarteratzea



HEZIKETA ZIKLOA		Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
<b>Erdi Maila</b>	Erizaintzako teknikari laguntzailea	16	73	<b>89</b>
	Arreta soziosanitarioko teknikaria	4	38	<b>42</b>
<b>Goi Maila</b>	Dietetika-teknikaria	19	25	<b>44</b>
	Analisi klinikoen laborategiko teknikaria	21	72	<b>93</b>
	Gizarteratze-teknikaria	8	42	<b>50</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>68</b>	<b>250</b>	<b>318</b>



**6.- GURUTZE GORRIKO GAZTERIA**

Gurutze Gorriko Gazteriaren helburua aisialdia hezkuntzaren ikuspuntutik lantzea da. Gainera, Gurutze Gorriko Gazteria umeak eta gazteak sensibilizatzen saiatzen da egiten dituen proiektu ezberdinen bidez.



**Osasunerako Hezkuntza:** afektibitate-eta sexu-hezkuntza eta hezkuntza emozionala, bide-hezkuntza, istripuen prebentzioa eta lehen sorospinak, HIES eta sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioa, droga-kontsumoaren prebentzioa eta arriskuen murrizketa, elikadura-ohitura osasungarrien sustapena.

**Irakurtzera animatzea:** Tailerren dinamizazioa, ipuin-kontalariak...

**Hezkidetza eta genero-ikuspegia:** hezkuntza ez-sexista, genero-indarkeriaren gaineko sentsibilizazioa eta prebentzioa. Berdintasuna.



**Proiektuak:**

- **Giza Eskubideetan eta Umeen Eskubideetan** heztea, Kultur Arteko Hezkuntza.
- **Garapenerako eta Bakerako** heztea. Gatazkak konpontzea.
- **Ingurumenaren eta iraunkortasunaren aldeko hezkuntza:** Kontsumo arduratsua, informazioa eta sentsibilizazioa: ingurumena ezagutzeko txangoak, zaintza, ezagutzak, birziklatzea...
- **Nerabe eta gazteengan indarkeriazko jokabideak prebenitzea:** berdintasun-dinamikak, enpatia, gizarte-trebeziak...
- **Nazioarteko Lankidetzaren eta Umeen Eskubideen gaineko sentsibilizazioa,** Kultur Arteko Hezkuntza. Lankidetzaren dinamikak, beste kultura, herri eta tradizio batzuk ezagutzea... Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetan esku hartzea.
- **Aisialdia, umeen eta gazteen partaidetza.** Neska-mutilen aisialdian hezkuntzaren ikuspuntua aplikatuta parte hartzea.

Honako jarduera Bizkaiko Eskualde eta Toki Batzorde ezberdinetan garatzen da, eta bereziki asteburuetan egiten da. Gainera, Bizkaiko puntu ezberdinetan egiten diren sentsibilizazio-kanpainetan ere hartzen da parte.

**PARTAIDETZA-DATUAK:**

TOKIKO/ESKUALDE KO BATZARRA	BAZKIDEAK (08 – 16)	BOLUNTARIOAK (16 – 30)	GUZTIRA
Uribealdea	23	22	45
Bilbo	87	31	118
Nerbioiko Harana	16	25	41
Enkarterri	72	47	119
Lea-Artibai	14	10	24
<b>guztira</b>			<b>347</b>



Gurutze Gorriko Gazteriak bereziki garrantzitsua den beste proiektu bat garatu du 2011n, honakoa hain zuzen:

**CIBERCAIXAS – Ospitaleratutako Umeak proiektua** Guruzetako eta Basurtuko Ospitaleetan.

Gurutze Gorriko Gazteriaren ustez, ezinbestekoa da umeen ospitaleko egonaldia errazteko behar diren mekanismo guztiak abian jartzea bizi behar duten moldaketa-prozesua eta beren garapen integrala ahalik eta modurik naturalenean eman daitezen. Ildo horri jarraiki, Zibergelen helburua ospitaleratzeak berak umei ahalik eta gutxien eragitea lortzea da. Horretarako kalitatezko esku-hartzea egitea ahalbidetuko duen azpiegitura egokia ematen zaie ospitaleei, bereziki teknologia berrien arlokoa, umeen eta euren familien arteko topaguneak sortzeko asmoz.

La Caixa eta Espainiako Gurutze Gorriaren arteko hitzarmena betez, Bizkaiko Gurutze Gorriak Guruzetako Ospitalean eta Basurtuko Ospitalean egiten du lan.

Honakoa da Gurutze Gorriak proiektu honetan duen esku-hartzea:

Astearte eta ostegunetan 16:00etatik 19:30etara bitartean laguntzen dugu ospitaleak ziberrean egiten duen lana

Larunbat eta igandeetan 10:00etatik 13:00era bitartean geu arduratzen gara ziberra kudeatzeaz, ospitaleko langileek astelehenetik ostiralera baino ez dute egiten eta. Horretarako 8 boluntariok osatutako talde bat egiten dugu.

Cibercaixas proiektuaz gain Ospitaleratutako Umeak ekimena ere egiten dugu. Boluntarioak umeen geletara joaten dira neska-mutilak Ziberrean parte hartzera animatzeko, eta umeetakoren bat ez badago Ziberrera joateko moduko egoera fisikoan, boluntario batek jardueraren bat egiten dio gelan.

Hilero 200 erabiltzaile inguru lortzen dira Guruzetako Ospitalean eta beste 50 inguru Basurtuko Ospitalean.

## **7.- NAZIOARTEKO LANKIDETZA**

### **Proiektua:**

Gipuzkoako eta Arabako Batzarrekin batera finantzatzea:

TOGO: Togoko Gurutze  
Gorriarentzako laguntza instituzionala:  
29.118,89€

NIGER: Umeen esplotazioaren eta  
trafikoaren kontra borrokatzeko  
eskualdeko programa: 107.714,58 €





**“MAGIA-EMANALDIA HAITIN” erakusketa ibiltaria, Zubiarte Merkataritza Zentroa (azaroaren 8tik 12ra)**

Argazki- eta bideo-erakusketa honen bidez, 2010eko urtarrilean Haiti suntsitu zuen hondamendiak bertako biztanleengan izan zituen ondorioez kontzientziatu nahi du Gurutze Gorriak. Erakusketa familia guztiarentzat da, baina antolatutako jardueretan parte hartu ahal izan duten 6 eta 14 urte bitarteko umeei zuzenduta dago bereziki.



**8.- SOROSPEN ETA LARRIALDIAK**

Sail honen helburua larrialdi edo krisi egoeretan biktimen premiei azkar eta behar bezala erantzun ahal izatea da. Jende orori zuzenduta dago, baina arreta berezia ematen zaie pertsonarik zaugarrienei. Larrialdi egoera horiei erantzuteko, lehen sorospenak in situ ematen dira eta, bidezkoa bada, ospitalera eramaten dira kaltetuak.

**Proiektuak eta Esku-hartze eremuak:**

Larrialdietako Osasun Garraioa.

Itsasoko Larrialdiak.

Lurreko eta Itsasoko Prebentzio Zerbitzuak.

Larrialdiei Berehala Erantzuteko Taldeak - ERIE:

Lurreko Bilaketa eta Salbamendua,

Uretako Bilaketa eta Salbamendua,

Biktimen Laguntza eta Sailkapena,

Behin-behineko ostatua

Laguntza-, salbamendu- eta sorospen-zerbitzuak Bizkaiko hondartzetan.

Bizkaiko Gurutze Gorriko boluntarioen partaidetza EAEko Laguntza Psikosozial

Unitatean.



## **9.- INGURUMENA**

2011. urtean adinekoei eta gazteei zuzendutako hiru proiektu egin ziren ingurumenaren arloan. Proiektuok honakoak dira:

### **Bizkaian ibaian barrena mugituz**

Ibaian barrena mugituz proiektuak herritarrak mobilizatzeko estrategiak eta Erakundeak boluntarioak lortzeko, prestatzeko eta kudeatzeko duen esperientzia uztartu nahi izan ditu Ibaiak Lehengoratzeko plan nazionaleko ekintzak eta irizpideak abian jarri ahal izateko.

2011. urtean sendotu egin da ingurumena mantentzeko eta hobetzeko jardueretan adinekoen eta gazteen partaidetza sustatzea helburu duen proiektu hau.

Honako arro hidrografikoetan egin dira jarduerak:

- Nerbioi ibaia
- Aguera ibaia



- Kadagua ibaia

Honako jarduerak garatu dira:

- Boluntarioak lortzea
- Boluntarioei prestakuntza ematea
- Parte hartzeko jarduerak:
  - *Urak aztertzea*
  - *Jarduera osagarriak*
    - Mendi-ibilbideak
    - Bisita gidatuak
    - Ibaiertzetan zaborra biltzeko jarduerak (hondakinak birziklatzea)
    - Basoberritzea
    - Ibai-ingurua aisialdirako eremu gisa erabiltzea (herri-bazkariak, kanpoko bilerak...)
  - *Informazio- eta Sentsibilizazio-jarduerak:*
    - Ingurumenaren gaineko saioak
    - Ingurumenaren gainean sentsibilizatzeko triptikoa egin eta zabaltzea; bertan borondatezko lanaren bidez ibaien narriadura prebenitzeko eta ibaiertzak hobetzen laguntzeko aholkuak jasotzen dira.



### **Ingurumenean adinekoen laguntzaz esku hartzea – “Adineko Sustatzaileak”**

Nerbioiko Haraneko Eskualde Batzarrak eta Pausoka elkarteak garatutako ekimen honek 65 urtetik gorako pertsonen artean ingurumenean esku hartzeko boluntarioak hezteko du helburu. Horrekin lotu nahi dena zera da, pertsona horiek ingurumenaren gaineko hezkuntza-lanak egitea beren komunitatean, hau da, beste talde batzuen aurrean sustatzaileak izan daitezela.



Proiektuak honako **helburuak** ditu:

- Adineko pertsonak dituzten familietan ingurumen arloko ohitura onek duten garrantziaren berri ematea eta kontu horren gainean sentsibilizatzea, gizarte iraunkorragoa lortzeko aldaketa-faktore gisa.
- Adineko pertsonen egoitzetan ingurumen arloko ohitura onak erraztuko dituzten tresnak ezartzea.
- Gurutze Gorriko boluntarioak ura eta energia aurrezteko eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuna lortzeko tekniketan heztea xede-taldearen aurrean jardueraren aitzindari izan daitezzen.
- Baliabideak modu irrazionalen erabiltzeak ingurumenean eta gizakiengan izango dituen ondorio negatiboen berri ematea erabiltzaileei.
- Pertsonak ingurumena errespetatzen duten eta hura zaintzen lagunduko duten jarrera eta balore positiboak berenganatzea sustatzea.
- Ingurumenaren gainean sentsibilizatzeko jarduerak egitea biztanleria osoari zuzenduta.

2011rako aukeratutako gaia etxean sortzen diren eta oso kutsagarriak diren produktuen ingurukoa da, eta horretarako honako materiala prestatu da:

- **Eman zure mugikorra kanpaina:** Poltsa bat ematen da mugikorrak birziklatzea errazte aldera.



- **Pilak birziklatzeko kutxa:** etxean erabilitako pilak birziklatzea ahalbidetzen du.





### **Ingurumenaren gaineko sentsibilizazioa**

Beste urte batez, Gurutze Gorriak ingurumenaren gainean sentsibilizatzeko jarduerak egin ditu kanpaina ezberdinetan parte hartuta:

#### **Uraren Nazioarteko Eguna 2011:**

Egun horretan parte hartu izanaren helburua herritarrak baliabide naturalen aurrezpenean eta kontserbazioan daukaten banakako eta taldeko erantzukizunaz kontzientziatzea da, horrela Klima Aldaketa moteldu ahal izateko. Ur-baliabideen erabilera eta kudeaketa, planetako toki askotan gertatzen ari diren lehortea eta basamortutzea eta gizarteari zein ingurumenari eragiten dieten bi arazo handi horiek planetaren beroketa okertzearekin duten lotura landu dira bereziki.

#### **Ingurumenaren gaineko tailerrak adineko pertsonekin:**

Aurten bi tailer egin dira, bata adineko pertsonak bizi diren etxeetan ura modu arduratsuan kontsumitzeari buruzkoa eta bestea etxean oso kutsagarriak diren hondakinak birziklatzeari buruzkoa.

#### **Materialaren zabalkundea**

Kalean egindako jarduera ezberdinen bitartez birziklatzeari, ura modu arduratsuan kontsumitzeari eta ingurumenaren inguruko bestelako kontuei buruzko informazioa helarazi zaie herritarrei. Mota horretako jardueretan triptikoak, ur-aireztagailuak eta pilak birziklatzeko kutxak banatu izan dira.

#### **Erakusketa eta Uraren kutxa**

"Uretan barrena mugituz" erakusketa arina. Aurten, berrikuntza moduan, "Uraren kutxa" izeneko material didaktikoa erosi da.



## BIZKAIAN GARATUTAKO BESTELAKO PROIEKTUAK EDO JARDUERAK

Urriari Bilbako Exhibition Centre-eko instalazio berrietan egindako **Adinekoentzako Aisialdi, Zerbitzu eta Jardueren 15. erakusketan** parte hartu genuen. Ekitaldi horretan mota ezberdinetako jarduerak egin ziren: laguntza, bertaratuei emandako zein multimedia heziketa (estimulazio kognitiboa, adinekoentzako lehen sorospenak, ohean diren pazienteak mugitzea), informazioa eta aholkularitza. Aurten ere GIZATERIAREN BOTEREA aldarrikatzeko **“Borondatezko ekintza-katea”** egin da.



**Hiesaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Egunean, abenduaren 1ean**, Gurutze Gorriko Gazteriaren eta Esku-hartze Sozialerako planaren artean koordinatutako informazio-karpa ezarri zen Bilboko Plaza Biribilean, eta Erakundeko boluntarioek gaixotasunari eta haren prebentzioari buruzko informazioa zabaldu zuten herritarren artean.

Emandako informazioa honako hauetan oinarrituta zegoen:

Facebook sare sozialaren bidezko GIBaren Informazio eta Prebentziorako Kanal Anitzeko Zerbitzu berria.

Gurutze Gorriko Gazteriak “Dudarik baduzu, informa zaitez! eta egizu zerbait” kanpaina berreskuratu zuen Hiesaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna zela eta.



Nabarmenak dira GIB prebenitzeko eta antzemateko prozesuan eta hiesaren tratamenduan egin diren aurrerapausoak. GIB lehenengoz diagnostikatu zenetik hogeita hamar urte igaro diren honetan, Gurutze Gorriak praktika arriskutsuak ekiditeko eta GIB duten pertsonen kontrako diskriminazio-jarrerak saihesteko lanean jarraitzen du.

Azken sei urteotan, emandako jarduera-arau eta baliabideez gain, **arretarako 900 111 000 doako telefonoa** izan da erantzukizunez jokatu eta jokabide arriskutsuak ekiditeko tresnarik behinenetako bat. Gurutze Gorriak 2005ean abian jarri zuen zerbitzu horren bidez, izenik eman gabe eta modu konfidentzian artatzen dira herritarrek GIB birusaren infekzioaren inguruan dituzten kontsultak. Langile espezializatuek kudeatzen dute, eta Hiesari buruzko Plan Nazionalak finantzatzen du. Kontsultak egiteko helbide elektronikoa ere badu: [informacionvih@cruzroja.es](mailto:informacionvih@cruzroja.es).



Abuztuan **UDA HONETAN ZAINDU ZEURE BURUA** osasun-kanpainaren inguruko prebentzio-tailerrak eta sentsibilizazio-jarduerak egin dira.

**Parte hartzen duten batzarrak eta egutegia:**

<b>Uribealdeko Eskualde Batzarra</b>	Getxo	Uztailak 17
<b>Durangoko Eskualde Batzarra</b>	Amorebieta-Etxano	Uztailak 18
	Durango	Uztailak 19
<b>Gernikako Eskualde Batzarra</b>	Gernika	Uztailak 20
<b>Enkarterrietako Eskualde Batzarra</b>	Zalla	Uztailak 21

**Prebentzio-tailerrak:**



HBH jokabide-tailerra (arriskua Hauteman; egon daitezkeen arriskuak Balioztatu; jarrera segurua Hartu).

BBB tailerra (Bihotz-biriketako Bizkortzea)

Lehen Sorospenen tailerra

KDEA tailerra (desfibrilagailu erdiautomatiko)

BAL jokabide-tailerra (Babestu/Abisatu/Lagundu)

Bizi-konstanteen tailerra

Umeentzako sentsibilizazio-tailerrak

**Partaideak:**

BOLUNTARIOAK	PARTAIDEAK
35 EMAKUME 33 GIZON	GIZONAK: 24 EMAKUMEAK: 54 UMEAK: 211
68 BOLUNTARIO	289 PARTAIDE



GIZATASUNA - INPARTZIALTASUNA - NEUTRALTASUNA - INDEPE N DENTZIA - BOLUNTARIOTZA - BATASUNA - UNIBERTSALTASUNA



## JARDUERAREN LABURPENA

<b>PARTAIDEAK ETA ZERBITZUAK</b>	<b>Partaideak</b>	
<b>GUZTIRA 2011</b>	<b>Erabiltzaileak</b>	<b>Zerbitzuak</b>
<b>Esku-hartze soziala:</b>	<b>27.199</b>	<b>188.691</b>
Adinekoak	10.879	98.961
Etorkinen gizarte-arreta	10.729	40.640
Enplegua	543	4.256
Errefuxiatuak	239	2.320
Pertsona ezinduak	212	5.994
Haurtzaroa eta Familia	3.178	9.322
Gabonetako jostailuen kanpaina	347	1.041
Komunitatearen Mesedetarako Lanak	50	1.385
Prebentziorako eta Osasunaren zein Inguruaren Zaintzarako Eragileak (Basauriko Espetxea)	40	190
Laguntza soziala zaugarritasun-egoeretan (eskola-materiala, berokiak, lozakuak, higiene-kitak, jarraipenak eta laguntzak)	867	18.724
Ospitalean diren gaixoen arreta (San Juan de Dios Ospitalea - Santurtzi)	3	384
Larrialdietarako etxea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat	13	29
Telelaguntza mugikorra genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat	99	5.445
<b>Ingurumena</b>	<b>7.141</b>	<b>119</b>
<b>Borondatezko lana eta Partaidetza</b>	<b>7.949</b>	
<b>Heziketa</b>	<b>6.225</b>	<b>431</b>
<b>Lanbide Heziketarako Zentroa</b>	<b>318</b>	<b>14 Talde</b>
<b>Gurutze Gorriko Gazteria</b>	<b>3.065</b>	<b>2.830</b>
<b>Sorospen eta Larrialdiak</b>	<b>26.205</b>	<b>26.924</b>
Larrialdiei Berehala Erantzuteko Taldea (ERIE)	58	18
Prebentziozkoak	1.047	1.505
Hondartzetako sorosleak	9.539	9.486
Garraio soziosanitarioa	15.453	15.453
Itsasoko Laguntza	108	462
<b>Osasun-plana (transmisiozko gaixotasunen prebentzioa)</b>	<b>383</b>	<b>1</b>
<b>Guztira</b>	<b>78.485</b>	<b>219.010</b>




<b>KANPAINAK</b>	<b>47.813</b>	<b>6</b>
<i>Uda honetan zaindu zeure burua, Gurutze Puzgarria</i>	289	5
<i>Haiti, magia-emanaldia Zubiarte merkataritza-zentroan</i>	47.524	1



**BIZKAIKO GURUTZE GORRIAREN ERAGINA GUZTIRA**

**126.298**

**219.016**

**Plan bakoitzean artatutako biztanleria**









## KUDEAKETA EKONOMIKOA

GASTUAK JARDUERA	Zenbatekoa	%
<b>Gurutze Gorriko Gazteria</b>	<b>58.178</b>	<b>1</b>
<b>Borondatezko Lana, Heziketa eta Aisialdiko Eskola</b>	<b>434.283</b>	<b>4</b>
<b>Esku-hartze Soziala</b>	<b>1.610.568</b>	<b>16</b>
<b>Sorospen eta Larrialdiak</b>	<b>5.203.251</b>	<b>51</b>
<b>Lanbide Heziketako Zentroa</b>	<b>1.042.982</b>	<b>10</b>
<b>Kudeaketa eta Administrazioa</b>	<b>812.501</b>	<b>8</b>
<b>Bestelakoak (Nazioarteko Lankidetzak, Elkartasun Funtza, Funtzen Sustapena eta Komunikazioak)</b>	<b>996.567</b>	<b>10</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.158.330</b>	<b>100</b>






2011ko FINANTZIAZIO-ITURRIAK	ZENBATEKOA	%
Zerbitzuak ematea	6.804.188	60
<b>Funtsak eskuratzea</b>	<b>1.987.468</b>	<b>18</b>
Diru-laguntza eta dohaintza pribatuak	2.028.598	18
Bestelako kudeaketa diru-laguntzak	22.004	
Finantzarioak	180.432	2
Kapitaleko eta bestelako diru-laguntzengatiko diru-sarrerak	253.076	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.275.766</b>	<b>100</b>



### FUNTSAK ESKURATZEA

<b>Urrezko Zozketa</b>	651.813	% 33
<b>Bazkideak</b>	1.279.574	% 64
<b>Diru-bilketak</b>	31.746	% 2
<b>Bestelakoak</b>	24.335	% 1
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.987.468</b>	<b>%100,00</b>



### 2011ko INBERTSIOAK

Ibilgailuak	Zenbatekoa	%
<b>3 anbulantzia (Uribealdea, Enkarterri eta Nerbioiko Harana)</b>	<b>185.119</b>	<b>76</b>
<b>4x4 ibilgailua</b>	<b>27.848</b>	<b>11</b>
<b>Ontziko motorra</b>	<b>7.608</b>	<b>3</b>
<b>Uretako motoa eta plataforma</b>	<b>9.889</b>	<b>4</b>
<b>Quad-a eta plataforma</b>	<b>8.220</b>	<b>3</b>
<b>Osagarriak (plataformak, etab.)</b>	<b>7.209</b>	<b>3</b>
<b>Guztira</b>	<b>245.893</b>	<b>100</b>



Bestelako inbertsioak	Zenbatekoa	%
Durangoko Batz. pabilioiak	472.243	49
Eraikuntzak eta instalazioak	209.482	22
Ekipo informatikoak	53.096	6
Bulegorako altzariak eta ekipoak	66.458	7
Tresneria eta ekipo medikoa	101.203	11
Beste ibilgetu material bat	35.284	4
Aplikazio informatikoak	14.540	1
<b>Guztira</b>	<b>952.306</b>	<b>100</b>

2011n kapitaleko diru-laguntzekin finantzaturako ibilgetua	Zenbatekoa	%
Ekipo informatikoak eta laborategia - EJ	39.849	64
Bermeoko Itsas GG ekipoak - EJ	12.862	21
Boluntarioentzako karpa	5.100	8
EVE anbulantziak	4.400	7
<b>Guztira</b>	<b>62.211</b>	<b>100</b>



## BIZKAIKO GURUTZE GORRIAREN KALITATE- ETA INGURUMEN-ZIURTAGIRIAK

2010. urtean **HONDARTZETAKO SOROSPEN ETA SALBAMENDU ZERBITZURAKO** **UNE-EN ISO 9001:2008 KALITATE-SISTEMA** **ETA** **INGURUMENAREN** **UNE-EN ISO 14001:2004 ZIURTAGIRIA** ezarri ziren Bizkaiko Gurutze Gorrian.

### Certificado del Sistema de Gestión Ambiental



GA-2010/0458

AENOR, Asociación Española de Normalización y Certificación, certifica que la organización **CRUZ ROJA ESPAÑOLA** dispone de un sistema de gestión ambiental conforme con la norma UNE-EN ISO 14001:2004 para las actividades: Los servicios de prevención y salvamento y socorro en las playas de la provincia de Bizkaia. que se realizan en: Oficina Provincial Vizcaya. C/ JOSE M<sup>o</sup> OLABARRI, 6. 48001 - BILBAO (VIZCAYA) Centro de Logística. C/ GENERAL CONCHA, 34-36. 48012 - BILBAO (VIZCAYA)

Fecha de emisión: 2010-07-29  
Fecha de expiración: 2013-07-29



### Certificado del Sistema de Gestión de la Calidad



ER-0872/2010

AENOR, Asociación Española de Normalización y Certificación, certifica que la organización **CRUZ ROJA ESPAÑOLA** dispone de un sistema de gestión de la calidad conforme con la Norma UNE-EN ISO 9001:2008 para las actividades: Los servicios de prevención y salvamento y socorro en las playas de la provincia de Bizkaia. que se realizan en: Oficina Provincial Vizcaya. C/ JOSE M<sup>o</sup> OLABARRI, 6. 48001 - BILBAO (VIZCAYA) Centro de Logística. C/ GENERAL CONCHA, 34-36. 48012 - BILBAO (VIZCAYA)

Fecha de emisión: 2010-07-29  
Fecha de expiración: 2013-07-29



**GKE Benchmarking kudeaketaren gardentasunagatiko ziurtagiria: 9 alderdi** aztertzen dira: Zuzendaritza Batzordea, Esparru Estrategikoa, Gerentziaren Zintzotasuna, Komunikazioa eta Irudi Publikoa, Giza Baliabideak, Finantza-gerentzia eta Funtsen Kudeaketa, Eragiketak, Emaizak eta Etengabeko hobekuntza.



### AENOR kalitate-ziurtagiriak:

1. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorra.
2. Heziketa

### Ezarritako beste kalitate-sistema batzuk:

- Borondatezko lanaren kudeaketa
- Interlabor@sarea, etorkinentzako enplegua



ER-0385/2007